

# ITSASU ITXASSOU

14

HERRI ALDIZKARIA FEVRIER 2025 OTSAILA BULLETIN MUNICIPAL



**Itsasuarrei, 2025 urtea xede eta ekintza emankorrez betea, elgarrekin biharko herririk zintzo eta atseginena eraikitzeko.**

**A tous les itsasuar, une année 2025 pleine d'intentions et d'actions généreuses et partagées, pour construire le village d'Itxassou que nous voulons pour demain.**

# ÉDITO

## Auzapezaren hitza



Joan den urtea izan bazen herri proiektu andana baten ontzeko aroa, 2025 urte berria izanen da egitasmo horien gauzatzeko garaia.

Abiatua da aintzin salmenta hemezortzi bizitegi erosgarrientzat, herritarren egoitza beharrei ihardesteko asmoz. Etxe eta apartamendu horien eraikuntzak abiatu behar luke aurtengo uda aintzin. Gure gazteak jotzen dituen bizitegi krisiari erantzuteko bide bat bada hor.

HOBEDI osasun etxea Ordokian, bere farmazia beherean eta osasun artatzaileak gaineko bi solairutan, udaberri huntan eraikitzen hasiko da eta 2026 udarako idekia behar luke. Bi mediku gazte elkartuko dira bertan Denise Poeydessus Machicote medikuarekin. Osasun zerbitzu ederraren eskaintza herritarrentzat hurbilenean.

Irigoinbehera artaleku ohiaren ateak zabaldu dituzte AIBAKoek, ekonomia sozial eta solidarioaren kideek. Leku zati baten erabiltzeko baimen iragankorra izenpetu da UGECAMekin Itsasuko herriko etxean, eta Irigoinbehereak hats berri bat hartzen du. Pareta zaharrek dariote oraino 2015ean lana galdu zuten hamamaka langileen kexua.

Itsasu-Kanbo txik txak autobus zerbitzuaren ondotik, Itsasuko geltokian treinak gelditzen ikusi ondotik, takzi solidarioa herritar multzo batek ederki ibilerazten duenetik, egunean hamar bat autobus joan jin eskainiak zaizkigu Itsasutik Baionaraino. Estakuru ederra gure ohiduren zirikatzeke !

Zuen hautetsiak arduratzen dira baitaere jendetzaren eta ekonomiaren gora beherez hego Errobi behere huntan. Gutarik nehorik ez litzuke ikusi nahi gure herriak ohetegi herrixka edo turismorako parke ! susta eta gara ditzagun hemen bereko enpleguak laborantzan, ofizialgintzan, zerbitzu ala industrietan. Geroa gure ardura eta nahikeriaren araberakoa izanen da.

Herriko kontseilu guziaren izenean, itsasuar orori, 2025 urte bat xede eta ekintza emankorrez betea elgarrekin biharko herririk zintzo eta atseginean eraikitzeke.

**Mizel HIRIBARREN**  
Itsasuko auzapeza

Si l'année 2024 a été l'année de maturation d'un certain nombre de projets municipaux, l'année 2025 sera l'année de la mise en œuvre de ces projets.

La pré-commercialisation des dix huit logements accessibles à des revenus moyens vient de commencer pour répondre aux besoins des habitants du village. La construction de ces maisons et de ces appartements devrait être engagée avant l'été 2025. C'est une des réponses à la crise du logement qui touche nos jeunes.

La maison de santé Hobeki sur Ordokia, avec la pharmacie et les professionnels qui s'y installeront, sera construite à partir du printemps de cette année pour une livraison à l'été 2026. Deux jeunes médecins généralistes y feront équipe avec le Docteur Poeydessus Machicote. C'est une offre de services santé renforcée au plus près des habitants.

Les grilles de l'ancienne maison de convalescence Irigoinbehera La Nive viennent de se voir poussées par AIBA, une entreprise de l'économie sociale et solidaire. La convention d'occupation n'est que temporaire mais le lieu commence ainsi à revivre. Ces vieux murs résonnent encore de la colère des dizaines d'employés qui en ont été licenciés en 2015.

Après la navette bus txik txak Ixassou Cambo, la gare de chemin de fer à nouveau desservie, la belle dynamique de l'équipe locale qui assure le transport solidaire, une ligne d'autobus relie désormais notre commune à Bayonne avec une dizaine d'aller retours quotidiens. Il ne nous reste plus qu'à interroger nos habitudes !

Vos élus sont aussi préoccupés par les dynamiques démographiques et économiques de ce bassin de vie Sud Errobi. Personne ne souhaite une évolution de nos villages en cité dortoir ou en parc de tourisme ! Confortons et développons les emplois locaux sur l'agriculture, l'artisanat, les services ou l'industrie. L'avenir dépend de notre ambition et de notre volonté.

L'ensemble du conseil municipal se joint à moi pour souhaiter à tous les itsasuar une année 2025 pleine d'intentions et d'actions généreuses et partagées pour construire le village d'Ixassou que nous voulons pour demain.

**Mizel HIRIBARREN**  
Maire d'Ixassou



**Itsasuko Herriko Etxea - Mairie d'Ixassou**

**05 59 29 75 36 - Email : [accueil@itxassou.fr](mailto:accueil@itxassou.fr) - Site : [www.itxassou.fr](http://www.itxassou.fr)**

**Mise en page / Diseinua / Itsasuko Herriko etxea**

**Impression sur papier recyclé : Imprimerie Mendiboure - Arizmendi**

# AURKIBIDEA / SOMMAIRE

## BERRIAK / ACTUALITÉS

Herriko etxeko artxibak / Archives de la mairie	4
Jantegian bazkariaren prezioak / Tarification cantine	4
Gora 2025 gaualdia / soirée Gora 2025	5
Bidean 30km / oreneko / Vitesse limitée à 30km / h	6-7
Txik txak Baiona Luhuso	8
Herriko etxeko parkea / Parc Mairie	9
Attania : hamar bizitegi / dix logements	10
Ordokia : zortzi etxe / huit maisons	11
Hobeki : medikuak herrian / médecins à Itxassou	12
Etxeak berritzeko / réhabilitation de l'habitat	12
Serorak joan dira / départ des religieuses	13
AIBA Irigoienbeherean	14-15
Balaki obrak / chantier Balaki	16
Balakiren kudeaketa / gestion du Balaki	17
Pilota eskaladari diru laguntza / opération mécénat	18
Balakide elkarteak / association Balakide	18
Ataria formakuntzak / centre de formation Ataria	19
Lekuonean haurtzaindegia / crèche Lekuonean	20-21

## INGURUMENA ENVIRONNEMENT / LABORANTZA AGRICULTURE

Natur erreserba / Réserve Naturelle	22
Etxaldean geroa / transmission de nos fermes	23
Gereziondo landareak / plants de cerisiers	23

## EUSKARA

Hitzaldia elebitasunaz / Conférence sur le bilinguisme	24
"KIT BESTA" formakuntza / Atelier "KIT BESTA"	24
EUSKARALDIA 2025	25

## HEZKUNTZA EDUCATION

Eguberriko ikusgarriak / retour sur les spectacles de Noël	26
--	----

## SOZIALA / SOCIAL

Justizia adiskidetzailerak / Conciliateur de justice	27
Adinetakoen bazkaria / repas des aînés	27
Olentzero eskoletan	28
Animazioak helduentzat / Animations pour les adultes	28
Gazteendako animazioak / Animations pour les jeunes	29

## EGOERA ZIBILA ETAT CIVIL

Asiako leizorrak ihizatu / chasser les frelons asiatiques	30
---	----

## EGUTEGIA - AGENDA/ JENDE KONDAKETA - RECENSEMENT

MIXEL ITZAINA	32
---------------	----

### **Estelle : idazkari herriko etxean eta begi erne jantegian Secrétariat de mairie et surveillance cantine**



Itsasuko herriko etxeko idazkari nagusi den Eliane Jaureguiberry lanetik gelditua da 2022az geroztik, osasun arranguren gatik.

Kanbon bizi den Estelle Mendibil sartu da 2024ko urriaz geroztik herriko etxean idazkari lanetan eta jantegiko bazkari denboran haur zaintzan. Itsasuarrek ukanen dute solaskide Estelle goizez herriko etxeko harreran edo telefonaz. Haurrak eskoletan diren egunetan, Estellen ardura berezia da jantegian haurren laguntzea eta zaintzea, zerbitzuan ari direnei lanaren arintzeko.

Depuis 2022, Mme Eliane Jaureguiberry est en arrêt et n'a pas encore pu reprendre son poste de Directrice Générale des Services de la mairie d'Itxassou.

Estelle Mendibil qui habite Cambo a été engagée depuis octobre 2024 sur des heures de travail administratif à la mairie d'Itxassou et sur des heures de surveillance à la cantine scolaire. Les itsasuar auront régulièrement Estelle comme interlocutrice à l'accueil de la mairie ou au standard téléphone toutes les matinées de la semaine. En complément, Estelle assure un poste d'animation et de surveillance auprès des enfants de la cantine scolaire, dans l'objectif de soulager la charge de travail des agents du service cantine.

### Archives de la mairie : Berexi eta sailkatu atxiki behar den guzia Trier et classer tout ce qui doit être conservé



« Mathilde et Flora sur le chantier d'archivage »

Itsasuko herriko etxeak CDG departamenduko herrien kudeantza etxeari eskaini diote artxiboen sailkatze lana, egitura hunek baititu langile adituak eta berezituak ofizio hautan. Lehen lan sail bat eraman zuen Axellek 2023an, eta Flora eta Mathilde dira etorri 2024 urte ondarrean eta 2025 urte hastapenean.

Artxibisten lana Itsasuko herrian izan da bereziki ehun mila paperren sailkatzea, orain arte urtez urte metatuak zirelarik nehongo armario eta gela itsuetan. Gutiz gehienak azken 80 urtetako herriko etxearen ibilbidearen lekuko dira, garaikideak hots.

Dokumentu guzien sailkatzen hasi aintzineko egoerak kondatzen zuen bazela 144 metra luze paper bazen sailkatzeko. Aste eta hilabete luzeen lanaren ondorioz, berexten eta sailkatzen, dokumentuen parte bat baztertua izanen da suntsitua izateko behar diren arauak segituz. Atxikia den dokumentu pila ongi markatua eta sailkatua izanen da ordenagailuko taulen bidez, legezko denboralditik landa suntsitzeko izanen direnak ongi seinatuz.

La mairie d'Ixassou a confié le travail d'archivage de ses documents au CDG (Centre Départemental de Gestion) qui dispose d'agents qualifiés et spécialisés dans ces tâches. Une première session avait été réalisée par Axelle en 2023, Flora et Mathilde ses collègues auront pris le relais en fin d'année 2024 et en début d'année 2025.

Le travail des archivistes du CDG sur la commune d'Ixassou a principalement consisté à classer des milliers de documents papier accumulés dans les armoires et autres locaux mansardés de la mairie. Ils correspondent pour la plupart à la période contemporaine de notre administration locale, c'est à dire aux 80 dernières années.

L'état des lieux avant archivage avait comptabilisé quelques 144 mètres de documents. Après les semaines et les mois d'un travail de tri, de classement, une bonne proportion des documents sera éliminée par les voies réglementaires. L'ensemble des documents conservés sera précisément identifié et répertorié numériquement, sachant qu'une partie de ces documents sera éliminé à la fin de la date de conservation obligatoire.

### Tarifcation des cantines : laguntzak jantegiko bazkari gastuentzat Aides pour réduire les coûts du repas à la cantine

Badira Estatuaren laguntzak hiru urte hontan eskoletako bazkari gastuen pagatzeko, irabazi apala duten familiek euro batean eskura dezaten beren haurren jantegiko bazkaria. 2021eko abendoaz geroztik baliatzen du Itsasuko herriak diru laguntza hori, familien laguntzeko. Neurri horren bidez, haur guzietan, zernahi izanik familiaren egoera, goza dezakete egunero kalitatezko bazkari ongi orekatua.

Itsasuko herriko etxeak, 2025eko urtarrilaren lehenaz geroztik, bazkariaren prezio taula berri bat agertzen du, herriko kontseiluak baieztatua. Euro bakar batean ordainduko dituzte haurren bazkariak 1000tik behera dutelarik familiek zergek ezarri dioten « quotient » neurria. 1000 eta 1250 artean dutelarik altxortegiak erabaki zenbakia, 2.40€ gostako zaie beren haurren bazkaria.

Bazkari gastu lagunduez baliatu nahi duten familiek behar dute altxortegiko « quotient » zenbaki horren ageria helarazi herriko etxerat. Ageri hori helarazten ez duten guzietan, bazkari prezio betea pagatuko dute, bazkari bakotx 3.90€koa. Jakin behar da bazkari laguntza hau ixilpean kudeatuak izanen direla herriko etxeko zerbitzuen ganik.

Depuis 3 ans, l'Etat soutient la mise en place de la tarification sociale dans les cantines scolaires, pour permettre aux enfants des familles les plus modestes de manger à la cantine pour 1€ maximum.

La commune d'Ixassou a activé ce coup de pouce depuis décembre 2021 afin d'aider les familles dans le paiement des repas de leurs enfants. Cette initiative vise à garantir que tous les enfants, quelle que soit la situation financière de leurs familles, puissent avoir accès à des repas équilibrés et de qualité à la cantine scolaire.

Depuis le 1er janvier 2025, la municipalité d'Ixassou a adopté une nouvelle grille tarifaire pour la cantine scolaire, suite à une délibération du Conseil Municipal.

Ainsi les familles dont le quotient familial est inférieur ou égal à 1000 peuvent bénéficier du repas à 1€ ; et les familles dont le quotient familial est compris entre 1001 et 1250 peuvent bénéficier du repas à 2.40€.

Les familles qui souhaitent bénéficier de la tarification sociale doivent transmettre leur attestation de quotient familial aux services de la mairie, sans quoi le plein tarif de 3.90€ sera appliqué. Il est important de noter que ces données sont confidentielles et traitées avec la plus grande attention.

## **Gora 2025 gaualdia : kontseiluko leihotik urte berriari begirada** **Coup d'œil sur l'année qui vient depuis la salle du conseil municipal**



**Herriko kontseiluko gela ederki harrotua zen 2025eko urtarrilaren 31kako ostiralez urte berriaren ospatzeko.**

**La salle du conseil municipal était bien animée vendredi 31 janvier 2025 pour honorer l'année nouvelle.**

**Hamarnaka itsasuar beren elkarten ordezkari baten hor herriko etxearen gomitari baietz ihardetsia zuenik.**

**Des dizaines d'itsasuar qui représentaient leurs associations avaient répondu présent à l'invitation de la mairie.**

Hor ziren gaualdi hortarat jinik elkarte hauetako ordezkariak besteak beste: Itsasuarrak, AEK, Idekia, Lasai, Vieux Machins, Hirukasko, Xapata, Goxoki, Balakide, Itsas Rock, CVV eta ACBL, Tous en scène, Murtutsenia, Dong Xi Est Ouest, Erle Beltza, Mugialdi, Bhoga yoga... beste zenbaitek ez dutela menturaz beren parte hartzearen berririk adierazi.

Participaient à cette soirée les représentants d'Itsasuarrak, Lasai, AEK, Idekia, Vieux Machins, Hirukasko, Xapata, CVV et ACBL, Goxoki, Balakide, Itsas Rock, Tous en scène, Murtutsenia, Dong Xi Est Ouest, Erle Beltza, Mugialdi, Bhoga yoga.... Et quelques autres qui n'ont pas forcément signifier leur présence.

Ataitze dantza taldeko gazteak suharki eskertuak izan dira erakusten duten borondate guziarentzat, astez aste hor baitira gogotsu eskoletako haurrei euskal dantzen erakasle. Kultur ondare hori borondatezko lanez transmititzeak merezi du herriko hautetsien ezagapena hainbat elkarte kideen erdian.

Les jeunes d'Ataitze ont été chaleureusement remerciés pour l'engagement qui les anime, à venir assurer avec passion, semaine après semaine, l'apprentissage des danses basques aux enfants.

Gai idorragotan, axuantek eta euskararen delegaziodun hautetsiak dute labur batzuk eta luzexago bestek agertu bost urte hautan daramazkiten dozierren berri.

Le travail bénévole de transmission de cet héritage culturel méritait bien la reconnaissance de la municipalité devant ce beau parterre de représentants d'associations.

Argitan eman dute sail askotan sendo aintzinatzen den herriaren itxura, bizitegigintza, osasun zerbitzutan, kirol eta ausagailu sailetan, mogikortasunean.....

Pour la partie formelle, ce sont les adjoints et le délégué à l'euskara qui ont exposé brièvement le contenu des dossiers qu'ils portent depuis presque cinq ans, Ils ont renvoyé l'image d'un village qui avance avec détermination sur les projets de logements, de services santé, d'équipements sports et loisirs, de mobilité....

Dudarik gabe, elkarten gelan iragan den pintxo poteo atsegina ahobatez preziatua izan da gomitari baiezkoa eman zuten guzien ganik, bidenabar askok ikusiak zituztela igogailu berriaren kokapena, herriko etxearen harrera eta bulego antolaketa berriak.

Bien entendu, la partie conviviale autour du pintxo poteo en salle des associations a également fait l'unanimité des participants qui ont aussi découvert pour l'occasion les travaux d'installation d'ascenseur et d'aménagements de locaux de la maison commune.

## Limitation vitesse : denak irabazle lasaiago gidatuz tout le monde gagnera à rouler moins vite

Abiadura gelditzen da gure herriko bidetan arrangura nagusia herritar aintzentzat. Ondoko hilabetetan bide eta eraikinen batzordeak landuko du noiz eta nola mugatuko diren herri erdiko karriketan abiadura arauak.

Sinesgaitza liteke pentsatzea abiaduraren moteltzeko panelak askiko direla otonen oldarraren ezititzeko. Ez du itxura gehiagorik pentsatzeak bide guzietan ezarriko direla trabak otonen abiadura menperatzeko, zernahi gostako bait liteke neurri mota hori.

Chaleroux bide kudeatzen aditua zenarekin, agertu zen inportanta zela herri erdi guziko bidetan 30km/oreneko abiadura erabakitzea, herritarrei buruz ongi landuz pedagogia eta komunikazionea.

**Abiadura mugatua 30km/ oreneko herri erdiko bidetan Herriko etxeak ditu deliberatzen abiadura mugatzeak herriko bidetan eta herriko sartze ateratzen artean diren departamenduko bide zatietan.**

Itsasuko 30km/oreneko abiadura mugatzeak estaliko lituzke beraz Ordokiatik Basaburu aldeko departamendu bideraino, , besteak beste Panekau, Oilomokoena, Irigoinea, Errobi xola, eliza eskola itzuliak, Mokoxainia- larrondoaa...

30km/oreneko seinaleak ezarriak litezke herri sartze eta ateratze guzietan, zutikako eta lurreko seinaletan

Bide zati batzuetan ezar litezke abiadura apalagokoak, 20km/orenekoak edo zone de rencontre deitzen dituztenak

**Ces graphiques correspondent précisément au comptage sur les 24 heures de la journée du 8 aout 2023**, qui révèle des données moyennes de la semaine sur laquelle avaient été réalisés ces comptages.

Ils présentent à la fois les flux de véhicules et les vitesses enregistrées par les compteurs. En ordonnées, le flux de voitures, et en abscisses les vitesses. (les flux s'additionnent pour donner le flux sur 24h)

**Graphe 1 :** Panekauko bidea vitesse règlementée à 50km/h

**Graphe 2 :** Karrika Nagusia (proximité Haize Hegoa), vitesse règlementée à 30km/h

**Graphe 3 :** Karrika Nagusia (entre Mairie et Balaki), vitesse règlementée à 30km/h

**Graphe 4 :** Irigoineko bidea, vitesse réglementaire estimée par l'appareil inférieure à 50 km/h

La question de la vitesse sur les routes du village reste la préoccupation majeure de beaucoup d'habitants. La commission voirie bâtiment définira dans les prochains mois quand et comment seront réglementées les vitesses en centre bourg d'Ixassou





Il est illusoire de penser que des panneaux de signalisation suffiront à imposer aux voitures une limitation de vitesse. Il n'est pas économiquement plus réaliste de contenir la vitesse en prévoyant partout des aménagements routiers onéreux.

Des travaux avec M. Chaleroux, expert en gestion de circulation automobile, ressortait qu'il était important de définir une zone à 30km sur toute la partie agglomération de la commune, avec une signalisation claire et cohérente, accompagnée d'une campagne de sensibilisation et de pédagogie auprès des usagers locaux.




**L'arrêté à 30km/h et la signalisation adéquate Ce sont les mairies qui décident des limitations de vitesse sur les routes communales et sur les sections de départementales situées entre les panneaux d'entrée et de sortie d'agglomération.**

Le projet d'arrêté communal pour instaurer la limitation de la vitesse à 30km/h concernerait donc toutes les voies depuis le carrefour d'Ordokia jusqu'aux sorties du village en direction d'Espelette, par Pannecau ou par Basaburu, les quartiers Errobi xola, église-école, les secteurs Mokoxainia- Larrondo et Irigoinea - Oilomokoena.

La signalisation 30km/h serait installée sur toutes les entrées dans la zone d'agglomération, avec des marquages au sol ou des panneaux supplémentaires à l'intérieur de la zone. Des zones avec des vitesses moindres pourraient être instaurées sur des secteurs plus réduits, avec des zones à 20km/h ou des zones de rencontre.



## Projet de voiries concernées par la "zone 30"



Projet de voiries concernées par la "zone 30", fourni par les bureaux d'études Chaleroix et Keima, qui serviront de base à l'élaboration de l'arrêté de circulation.

Les voiries en jaune seraient impactées par la limitation de vitesse à 30km/h.



Pensez à télécharger sur votre téléphone l'application INTRAMUROS sans oublier d'activer les notifications.

Vous pouvez suivre les nouvelles et événements d'Itxassou.

<https://appli-intramuros.fr/>  
Telekarga zazu aplikazione hori zure telefona mugikorrean.

Herriko berri eta gertakari guzien jakinean izanen zira.

# Txik txak egunean hamar joan jin Baionaraino Dix allers-retours par jour jusqu'à Bayonne



Hitzemana izan zen bezala 2024ko udazkenean, 2025eko urtarrilaren 6etik, autobus ibilbide bat idekia izan da Luhosotik Baionaraino, Itsasuko bidaiariak hartzen ahal dituela bi geldigunetan : Urtuxenian eta Ordokian.

Baionatik luhosorakoan, 40 zenbakia eramaiten duen autobusa gelditzen da Ordokiako autobus aterbearen parrean, D918 departamenduko bide sahetsean, Autobus geldigune hori bera zuen baliatzen Kanbo Itsasu egiten duen Txik Txak zerbitzuak.

Baionatikako autobusaren bigarren geldigunea Aljeriako harritik beherago eskuin hartuz kausitzen da. Urtuxenea, beherago den etxe baten izenez deitua izan da geldigune hori. Autoen uzteko lekua antolatzeke modua bada hor gaindi, hirigintza planak erakusten duen bezala.



## Passages du bus 40 sur Itxassou

Aste egunez, goizez 10.00arte eta iluntzez 17.00 tarik, autobusak badira oren guzietz. Aste egunez, egun erditan, autobusak bi orenetarik.

Asteburu eta jai egunetan, bakanago autobusak. Baiona erdiko Euskaldunen plazarat heltzen dira 40 ibilbideko autobus guziak. Txik txak internet gunean agertzen dira autobusen egun eta ordu guziak.

Sur les jours de semaine, toutes les heures en début et fin de journée. (jusqu'à 10h du matin et à partir de 17 h)

Toutes les deux heures en milieu de journée. Sur les fins de semaine et jours fériés : fréquence de passage moins soutenue.

Comme annoncé à l'automne 2024, depuis le lundi 6 janvier 2025, un autobus part de Louhossoa jusqu'à Bayonne en embarquant les passagers d'Itxassou sur deux points d'arrêt pour notre commune : Urtuxenia et Ordokia.

En direction de Louhossoa, l'autobus de la ligne 40 s'arrête au niveau de l'abribus Ordokia, qui est bien connu des itsasuar, sur la départementale D918, à proximité du rond point Ordokia.

Ce point d'arrêt était déjà valorisé par la navette txik txak qui assure la ligne 28 Itxassou - Cambo.

Le deuxième point d'arrêt de la ligne 40 se trouve au premier carrefour après le mémorial d'Algérie. Ce point d'arrêt a été désigné Urtuxenia, du nom d'une des maisons situées en contrebas. Des aménagements seront à prévoir pour permettre le stationnement des voitures à proximité.

Une arrivée Place des Basques à Bayonne pour tous les voyages.

Les horaires de cette ligne 40 sont détaillés sur le site de Txik Txak.

Possibilité d'acheter les billets dans les bus, et toutes les offres de titres de voyages sur

<https://www.txiktxak.fr/titres-et-tarifs/titres-occasionnels/>



## Aménagement du parc mairie : buxeta parte hartzailea eta herritarren proposamenak Budget participatif et propositions des habitants

Herriko etxeak zabaltzen zuten 2024 udaberrian proiektu deialdi bat buxeta partehartzailearekin, eta herriko etxe gibeletako parkeari zoakona. Hiru proiektu eramailek agertu eta helarazi dituzte beren proposamenak.

5000€roz lagundua zen proiektu deialdiak helburu hauk agertzen zituen :

- \* Elkarbizitza eta herriko parkean ongi egokitzea
- \* Heldugarrtasuna eta erakargarritasuna belaunaldi guzientzat, lehenetsiz herritarren arteko lokarriak eta erabilpen kolektiboa

Araudiek eskatzen zuten egitasmo kolaboratibo baten asmatzea, ingurumena errespetatuko zuena eta zuhurra. Bi ardatz nagusi atera dira :


- Denentzako erakargarritasuna eta elkarbizitza hobetu, josta lekuena hobetuz, pik nik egiteko lekua egokituz, lasai egoteko eta kirola egiteko antolatuz, zuhaitz ezberdinen itzalaz hornituz eta itxura hobetuz. Haur ttikienentzako eta ttarrotuentzako joko eskaintza guti denez, indar berezi bat eginen da.
- Ingurumenaren ikuspegitik egokia den eremu bat ikasteko eta gozatzeko, bioaniztasuna fagoraturaz, zuhaitzak landatuz eta hesi fruitudunak, eta ur putzu bat antolatuz.

Parkea pentsatua da baitaere oinezko, eta kirol ibilbide baten eskaintzeko herrian barna, beretuko duela Ibai Etcheverriaren itsasuar zurgin ikasketen bururatzeko obra.

Gaëlle Mané (baratze egokitzaileak) kudeatu dituen tailer kolektiboetan bildu ditu 5 aldiz proiektu eramaileak eta bateratu dituzte batzuek besten ekarpenak ikuspegi orokor batean. 2025 urteko xedea izanen da Ibaien kioskoaren kokatzeko lekua segurtatzea, udaberri huntan, eta ondotik ikustea zoin diren lehen ekintza parte hartzaileak obratzeko, bereziki landaketak eta jokoan muntaketa.



*Chef d'œuvre de fin d'étude d'Ibai Etcheverria qui sera installé au parc de la mairie*



La Mairie d'Ixassou diffusait au printemps 2024 un appel à projet doté d'un budget participatif, et qui concernait l'aménagement du parc de loisirs derrière la mairie. Trois porteurs de projet ont élaboré et renvoyé des propositions.

L'appel à projet, doté d'un budget participatif de 5000€, ciblait :

- \* La convivialité et l'insertion cohérente du parc dans le village ;
- \* L'accessibilité et l'attractivité pour toutes les générations,

Les règles du jeu demandaient d'imaginer un projet **collaboratif**, respectueux de l'**environnement**, et **sobre**.

Deux axes forts sont ressortis :

- Améliorer l'attractivité et la convivialité pour tous, avec l'enrichissement des aménagements ludiques, la mise en place de mobilier de pique-nique, de détente et d'activité sportive, et des plantations variées pour offrir de l'ombre et embellir le site. Le manque d'équipements pour les tout petits et les jeunes adolescents a été particulièrement souligné et fera partie des priorités.

- Offrir un espace de découverte et de partage autour de l'environnement, favoriser la biodiversité, avec notamment la plantation d'arbres et de haies fruitières, et la création d'une mare.

Le parc est également pensé pour s'inscrire dans une boucle de promenade et un parcours sportif à l'échelle du village, et intègre un kiosque qui sera le chef d'œuvre de fin d'étude d'Ibai Etcheverria, jeune Itsasuar, aspirant « compagnon charpentier ».

Les ateliers de projet animés par Gaëlle Mané (conceptrice paysagère) ont réuni à 5 reprises les porteurs de projet et permis de combiner les différentes intentions dans un projet d'ensemble. L'objectif pour 2025 sera de libérer l'espace nécessaire à l'installation du kiosque au cours de ce printemps, et de déterminer les premiers chantiers participatifs à réaliser, notamment des plantations et la fabrication de mobilier.

## Attania

# Hamar bizitegi herritarren beharrei eskaintzeko Dix appartements pour répondre aux besoins locaux de logement

Attania deitzen den bizitegi proiektua Panekau karrikan kokatzen da, Herriko Etxetik Altzuieta ekonomia eremurako bidean. Hamar bizitegi badira jadanik itsasuarrei aurkeztuak saltzapenerako. Proiektu hortaz interesatua den nornahik abisatu behar du herriko etxea harremanetan ezarria izateko Maneokoekin.

Itsasuko herriko etxeak eskaturik, EPFL egiturak eresia du lur eremua. Maneo Habitat, bi emazte ernek kudeatzen duten promozio etxea, agertu da herriko hautetsiekin elkarlanean ibiltzeko prest eta herritarren beharrei erantzuteko gogoarekin Hamar bizitegiak kokatuko dituen eraikina 2025eko udan ateratzen hasi behar liteke.

Attaniako bizitegiak asmatuak izan dira bizi giro atseginarene eskaintzeko. Eraikina buruan buru zeharkatzen dute, ongi itzuliak dira iguzkiari, barne eremu egokienak eta terrazak kanpoalderat. Solairutarat heltzeko igogailua bada, eta kanpoko inguramen guzira berde berdea da. gainera, herri erditik hurbilenean da eraikina, saltegiak eta garraio publikoak hurbilenean dauzkala.

Azkenik, eros prezioak arrazoinean dira eta heltzeko modukoak laukian agertzen diren irabazien azpian dauden guzientzat, BRS moduko bizitegiak baitira. Gisa hortan neurri batean atxikitzen dira eraikitzearen gosta sariak, lur eremuarentzat alokairua ordaintzerat behartzen delarik.

**Le projet Attania se trouve dans la route Panekau qui relie la mairie à la zone artisanale Altzuieta. Une dizaine d'appartements sont déjà proposés à la prévente pour répondre à la demande de logements des itsasuar. Toute personne intéressée par le projet peut se rapprocher de la mairie, qui la mettra en contact avec les porteurs de projet.**

Le terrain a été acquis par l'EPFL à la demande de la commune d'Ixassou. Maneo Habitat, une petite société de promotion immobilière dirigée par deux femmes dynamiques, a pris l'initiative de collaborer avec les élus locaux pour développer un projet adapté aux besoins en logement des résidents. La construction du bâtiment, qui abritera dix appartements, devrait commencer à l'été 2025.

Les appartements d'Attania ont été conçus pour offrir un cadre de vie agréable. Il s'agit d'appartements traversants, bien orientés pour maximiser l'ensoleillement, avec des espaces intérieurs optimisés et des terrasses extérieures. L'accès aux étages pourra bénéficier d'un ascenseur et l'environnement verdoyant est particulièrement agréable. En outre, le projet bénéficie de la proximité du centre-bourg, facilitant l'accès aux commerces et aux transports en commun.

Enfin, les prix d'achat sont accessibles à ceux qui respectent les plafonds de revenus (voir encadré ci-contre), car il s'agit de logements en Bail Réel Solidaire (BRS). Ce système permet de maîtriser les coûts de construction tout en proposant une location du terrain sur lequel le bâtiment est édifié.

### **Bizitegien merkatuak deliberatzen duelarik nor biziko den bihar hemen Quand le marché de l'immobilier détermine qui habitera ici demain**

Gehienetan gure lotizamenduetako egoitzak eta beren lur zati nasaiaik nekez dira erosgai hemengo gazte edo herriko familientzat.

Askoz karioegi estimatuak izaten dira, frangotan 300 000€ gora eta batzuetan 700 000€ gaintuz. Herriak ere ez dira nehundik apailatzen ahal etxe horien erosterat, bizitegi gehiagotan banatzeko ontasun egokia izanik ere, eros prezioa jasan ezina gelditzen baita etxea berritz moldatzeko tenorean.

Erostunak izan daitezke irabazi maila goragoa duten, nahitaez askotan hirigune handietarik jina. Molde hortan da aldatzen gure herrietako jendetza etxeen merkatuaren gatik.

Bizitegien eroste eta alokatze prezioa goratzen du eta urruntzen lekuan berean bizi diren herritarren irabazi mailatik. Behartzen

ditu gazteak beren herritik urruntzerat. Eta etxe karioak erosten dituzten jendeak ez dira batere herriko giroan sartzeko asmoarekin etorriak....

**En général, les résidences de nos lotissements et leurs parcelles généreuses sont difficilement accessibles aux jeunes et aux familles déjà résidents sur la commune.**

L'estimation du bien est souvent bien trop élevé, couramment au-delà des 300 000€ et jusqu'à des niveaux supérieurs à 700 000€. Les communes ne peuvent certainement pas se risquer à de tels investissements, le montant d'acquisition impacterait trop fortement les coûts de répartition du bien en plusieurs logements.

Il est évident qu'il existe des acheteurs potentiels, souvent des personnes à fort pouvoir d'achat, en majorité issues des grandes métropoles.

Ainsi, les villages connaissent de fortes transformations liées au marché immobilier : des jeunes qui ont du mal à trouver un logement et qui, parfois, sont contraints de quitter leur village; et des habitants plus riches qui souhaitent s'installer, sans forcément beaucoup se soucier de s'intégrer dans le tissu social et culturel local.



## Zortzi etxe prezio jasangarrian Ordokian

Ongi doa zortzi etxe berrien eraikitze proiektua Ordokian. Eraikitze baimenak eskuratu ditu etxe multzoa kudeatzen duen COL sozial eragileak. Obrak egiteko, enpresen merkatu deia zabaltzeko bezperak dira, hauen ondotik hautatuko baitira baldintza tekniko eta ekonomiko egokienak proposatzen dituzten ofizialeak.

Itsasuar askok ez du gehiago erosten ahal eraikigarria den lur zati bat oraingo merkatuko prezioan, hartan eginerazteko amestu duten etxea. Bizkitartean, badute Ordokia bezalako proposamenekin herritar frangok beren egoitzaren erosteko moldea. Hemen erabilia den BRS formularekin, erosiz bizitegia eta alokatuz bizitegia dakarren lurra, bankoari egin behar diren maileguak apalagoak dira, eta herritar gehiago heltzen ahal da jabetzarat.

Ordokian proposatuak diren etxeak T3, T4 eta T5 itxurakoak dira eta laster salgai aterako dira Itsasuko herritarrentzat. Bizitegi hauen eskaintzaz interesatua den nornahik behar du jakinarazi herriko etxean. Harremanetan ezarria izanen da proiektu eramaileekin.

Nombre de personnes	ZONES B2 ET C
1	32 672
2	43 633
3	52 470
4	63 346
5	74 518
6	83 983
Pers. suppl.	9 368

Nombre de personnes dans le foyer

Revenu fiscal de référence du foyer

## Le COL : huit maisons à prix abordable à Ordokia

Le projet de construction de huit maisons à prix abordables sur Ordokia avance bien. Les autorisations d'urbanisme ont été accordées au bailleur social COL (Comité Ouvrier du Logement) qui s'est engagé sur cette opération. La consultation des entreprises est sur le point d'être lancée et permettra de retenir les artisans qui proposeront les meilleures conditions techniques et financières pour assurer la réalisation des travaux de construction.

Beaucoup d'itsasuar ne peuvent plus se permettre d'acheter une parcelle de foncier au prix du marché actuel et parvenir à y faire construire la villa dont ils ont rêvé. Ils peuvent néanmoins prétendre à acheter leur habitation en profitant des propositions comme celles d'Ordokia. La formule BRS qui est appliquée ici, avec l'achat du bâti et la location du foncier qui le porte, permet de solliciter des prêts moins élevés, facilitant ainsi l'accès à la propriété pour de nombreux acheteurs potentiels.

Les maisons proposées seront de types T3, T4 et T5 et seront bientôt mises en vente pour les habitants d'Ixassou. Toute personne intéressée par l'offre de logements ne doit pas hésiter à se faire connaître en mairie. Le contact sera établi avec les porteurs de projet.





### **HOBEDI : laster hiru mediku elgarrekin Bientôt trois médecins en cabinet de groupe**

Bi mediku gazte, Alexandre Lévigne eta Pierre Lartigau Carricaburu, orainokoa mediku ordezkatzan ibiltzen direnak Kanbo eta Larresoroko auzo herrietan, zinez interesatuak dira Hobedi osasun etxeko egitasmoaz.

Badute asmoa Hobedin jartzeko 2026ko udatik, elkar lanean Denise Machicote medikuarekin. Bitartean, 2025 udazkenetik

harat, artatzen hasiko dira bakotxa denbora erdiz Ordokian alokatuko luketen mediku gela batean.

Deux jeunes médecins, Alexandre Lévigne et Pierre Lartigau Carricaburu, actuellement en remplacement sur les communes voisines de Cambo et Larressore, sont très intéressés par la démarche de la maison de santé HOBEDI.

Ils souhaitent s'y installer d'ici l'été 2026 en association avec le Docteur Machicote Denise. En attendant, à partir de l'automne 2025, ils débiteront leur activité à mi-temps chacun sur des locaux provisoires d'Ordokia, afin d'assurer une permanence de soins.



### **Maison de l'habitat : laguntza ederrak bizitegien berritzeko Des aides parfois conséquentes pour rénover les logements**

Laguntza tekniko eta ekonomikoak badira bizitegi berritzearen sustatzeko ala sustengatzeko, hotz beroen ganik begiratzeko, mogitzeko edo ibiltzeko nekeziei bizimodua egokitzeko, eta hutsik gelditzen diren bizitegi zaharkituen egokitzeko.

Egin behar den lehen urratsa argibideen hartzeko, Maisons de l'habitat zerbitzuetarik hurbiltzea, Baionan eta Donapaulen kokatuak direnak. Hilabetero permanentziak eskainiko dituzte Errobi Poloko lokaletan Altzuetan.

Berritzeko den bizitegirik balin baduzue, baitezpadakoa da obrak hasi aintzin aski goiz informatzen hastea. Luzeak dira urrats administratibo guziak, luzeak diren bezala diru laguntzen baimentzeko prozedurak. Diru laguntza publikoak preziaztekoak izan litezke egoera bakotxaren arabera. Obrak hasiak diren orduetik berantegi da dozierren betetzen hasteko.

Bestalde, Itsasu, Herri Elkargoko beste hamar bat herri bezala, partaide ibili da OPAH bizitegi berritze programa kolektibo batean. Neurri eta baldintza berriak ari dira zehazten ekintza kolektibo horientzat, helduko direnak herrien diru parte hartzearen beharzerat. Berri gehiago ondoko egunetan.

**Que ce soit pour des logements nécessitant une meilleure isolation thermique, une adaptation aux besoins des résidents, ou encore une réhabilitation en raison de leur état dégradé, des aides techniques et financières publiques sont disponibles pour accompagner et encourager les propriétaires (résidents ou bailleurs) à entreprendre des travaux de rénovation.**

La première étape consiste à se renseigner auprès des services de la Maison de l'Habitat, situés à Bayonne et Saint-Palais. Désormais, une permanence mensuelle est également proposée au Pôle Errobi.

**Permanence 2025 tous les 3ème jeudis de chaque mois  
Uniquement sur RDV de 14h à 17h. Pôle Errobi 05 59 44 77 80  
maison.habitat@communaute-paysbasque.fr**

Si vous envisagez de réhabiliter un logement, il est essentiel de vous informer en amont, avant le début des travaux. Les démarches administratives et les conditions d'attribution des aides peuvent nécessiter un certain délai. Selon les situations, les aides publiques peuvent être significatives, mais elles ne peuvent en aucun cas être accordées pour des travaux déjà engagés.

